



SANTO TOMAS
LIZEOA



ELKARTE KLABEAK

Aplikazio hau sortzeko, elkarte ezberdinekin jarriko gara harremanetan. Gure enpresan aplikazio bera sortzeko informatikoak edukiko ditugu, baina hemendik kanpo beste zerbitzu batzuen beharra edukiko dugu baita ere, guk azken produktua ekoizteko.

Alderdi informatikoaz gain, aplikazioa erabiltzeko erraz eta polita jartzeko, hainbat diseinatzaile grafiko beharko ditugu. Horretarako, *Artair* enpresa aukeratu dugu. Lan hau ondo eta garbi egin dezaketela uste dugu, prezio baxuan, gure enpresari balio eraintsia emateko.

Aplikazioaz gain, gure markako hainbat produktu sortzea gustatuko litzaiguke. Batzuk bezeroei oparitzeko (sortu nahi dugun harreman hori mantentzeko) eta beste batzuk berriz, merkatuan txertatu eta saltzeko helburuarekin. Produktu hauen artean ur botilak, plastikozko motxilak, kamisetak eta telefonoa besoan eramateko plastikozko boltsatsoak daude. Hauen ekoizpena ez da gure esku egongo, hainbat hornitzaile edukiko ditugu produktuak sortu eta ondoren gure markaren logoa ezarriko diotenak. Motxila eta kamiseten ekoizpena Printful enpresaren esku utziko ditugu: epe luzeko akordio bat egingo dugu beraiekin, 2 hilabetez behin eskaera bat jaso dezagun. Ur botilak berriz, Garrampa enpresak ekoitziko ditu eta azkenik, mugikorra busti gabe besoan eramateko Billingham taldeari eskatuko dizkiogu. Ikerketa sakon baten ondorioz ikusi dugu guk aukeratutako hornitzaileak merkatuko prezio-kalitate erlazio hoberena ematen digutenak direla. Gainera, produktu hauetako batzuk saltzeko ez direnez, ez dute guretzako diru sarrerarik suposatuko: are gehiago, seguraski dirua galduko dugu, baina gure iritziz hau zerbitzu ona emateko beharrezkoa da.

Hau guztia dela eta, espero dugu gure hornitzaileekin harreman onak edukitzea eta proiektu hau aurrera eramatea laguntzea.